

Annelia Arkotxa

IDAZLEA

Kurri

A

zaroaren 26a. Place Painlevé bere baratze ttipiarekin. Negua, 13:45. Usoak. Ene ezkerretik den zuhaitzean, lerro-lerro kokatuak, ttuttul, lumak harrotuak, buruak lepoan sartuak. Aulki batean jarria nago bi yoghourt eta laranja baten jaten. Parean, Octave Greard-en (?) brontzezko begiek begiratzen naute. Eskuinetik, Sorbona, Parisko unibertsitatea. Ezkerretik, Cluny. Ene saihetsean, jartzen da orain, aulkiaren bertze puntan, gizon adineko bat. Ondokoan, arropak pinturaz enbokatuak dituen pintore langile bat, pausatzen da minutu batzuk. Leher egina dirudi. Bi amoros gaztek eskuz-esku kuru-tzatzen dute baratze ttipi erronda. Urrunago, gizon bibotedun bat kazetaren leitzen. Eskuinetik den teilaturik gabeko eskelari kakiz beztituak, zigarrata behatzen artean harturik, berekin darabilen irratia pizten du. Arbolen hostoak hori, gaztaina eta karamel kolore.

Azaroaren 27a, 19:00. Clunyko bakean nago berriz. Maite dut leku hau nehor ez delarik, edo jende gutti. Elizako ate batean den afixa batek iragartzen du jadanik iraganen den mintzaldi bat: *Transparence et lumière. Le verre dans la poétique médiévale*. Iturria beti eskuinean, ahoa zabalik dagoen bere munstro-gargularekin. Parean dudan dorre gotikoan, harpa itxurako eguzki ore



GAIZAK IROZ

bere eguzki zizelduarekin erdian. Data bat: 1674. *nil sine nobis* izkribua letra kapitaletan. Zerbaki batzuk eta letra alfabetikoak. Izpiak, orratza. Lore arrosak primaderan bagina bezala zabalduak zaizkion landare kurrilari handia, paretan goiti doa. Bapatean, amerikar turistak dorpeki, konkista aire batekin, sartzen dira korrale baketsuan, gora mintzo, asiaticoak ere bai beren argazkiak hartzeko makinekin. Banoa kanpora.

Azaroaren 28a. Mazarine liburutegira noala, Saint-Germain-des-Prés metrotik jalgitzean eskuin den Saint-Symphorien kaperan gelditzen naiz. Paretan, kartoi zuri handi batzuetan idatziak diren azalpenek diotenez, 555etik 576ra Parisko apezpiku izan zen Germain santuaren hilobiaren lekua zen hemen. Hemengo basilikan omen dira ehortziak merovingiar errege eta erreginak ere, Dagobert artekoak. Hemen gordea ere, erlikia bezala, frantseseko klaseetan hainbeste aipatzen ziguten Blaise Pascalek 1654ko azaroaren 23an ukan zuen iluminazioan izkribuz bete zuen pergaminioa. Leku honetan ziren hasi biltzen, halaber, XVIgarreneko lehen urteetan, Frantziako lehen erreformatzaileak. Hemengo buru izan zen, 1507tik landa, Guillaume Briçonnet. Margarita Nafarroakoaren gidaria. ■



Bapatean, amerikar turistak dorpeki, konkista aire batekin, sartzen dira korrale baketsuan, gora mintzo, asiaticoak ere bai beren argazkiak hartzeko makinekin. Banoa kanpora



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Argiakoak ikusi ditut inguruko zenbaitengan. Realak irabazi du bere Anoetako partida. Orain hilabetea

inutil hutsak zirenak, txukun ari dira eta balio-tsua dira, igande arratsa alaiagoa egin baitigute. Eta biharamuna zer esanik ez. Ondoan orain hilabete eredu-garria genuenak, Bruesa taldeak alegia, Ilunben sinatu du porrota iaz irabazitakoa galduz. Negarrez ikusi dugu entrenatzailea hedabidetan bere bizitzako une ilunenetakoa duela zotinka esanez. Ez du beraz bizimodu txarrik izan orain arte. Hilabete batean trukatu dira ereduak emaitzek eraginda. Planifikazioa, entrenamendua, joka-

Aurpegi

larien jarrera eta oro har klubaren balioa emaitzek aldatu dute. Lehiaketak ezartzen du bakoitza toki batean zoriak aitzakia eta justizia auzoan.

Lanari ez zaio berez merezimendurik aitortzen, ongi eginak ez du beti merezi duen emaitza ekartzen. Arerioak garaitu behar dira. Eta talde guztiek ez dituzte ahal berak. Baina berdin epaitzen ditu lehiak. Frantziako hauteskundeetan hamabi taldetik bik lortu dute lehiari jarraitzea, hirugarren bat inguratu zaielarik. Hemen berdintasunik ez ahaletan, ez lehiari. Galtzailetan ez dugu alerik ikusi negarrez, lehiak ez baititu berdin epaitzen guztiak. Eta hori dugu kontsolamendu. ■